



GAZAKO GENOZIDIOARI BURUZKO KOMUNIKATUA

Osasun Mentalari buruzko Kataluniako Kongresua Fundazioko (FCCSM) Haurren eta Gazteen Lantaldetik gure ahotsa altxatzen dugu Palestinako biztanleriak, eta bereziki haur eta nerabeek, pairatzen dituzten ankerkeriak salatzeke.

Guztion elkartasunerako premiazko deia egiten dugu eta Israelgo Gobernua herri palestinarren aurka egiten ari den genozidioa berehala gelditzeko eskatzen dugu. Bereziki salatzen dugu, eskubide osoko herritar diren eta etorkizunaren zati bat kentzen ari zaizkien haur eta gazteei eragindako basakeria.

Esperientziaz dakigu biziraungo dutenei bizitako traumek ondorio sakonak utziko dizkietela haien subjektibotasunean, gizarte harremanetan eta giza eskubideekiko errespetuan duten konfiantzan, horiek ere haurren eskubideak baitira.

Jorge Drexlerrek argi eta garbi esan du: "Ez dago "Zurerik", ez "Bererik" ez eta "Nirenik" ere. Haurrak badira, gureak dira. Haur guztiak gureak dira. "

Varsoviako ghettoan haurtzaroaren defendatzaile sutsua izan zen Janusz Korczak doktorea ere gogoan dugu.

Ezinbestekoa da Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean (1989) aitortutako eskubideak errespetatzea. Hitzarmen hori munduko ia estatu guztiek onartu zuten, baita Israelgo Estatuak ere.

Hitzarmen hau modu erreal eta eztabaidaezinean aplika dadila exijitzen dugu, eta Espainiako Estatuaren eta nazioarteko komunitatearen jardun argi eta irmoa eskatzen dugu, basakeria horrekin eta bere inpunitatearekin amaitzeko.

Haurren eta Gazteen Lantaldea

Osasun Mentalari buruzko Kataluniako Kongresua Fundazioa (FCCSM)

Bartzelona, 2025eko urria

Atxikimenduak:

Birbidali ohar hau zuen kontaktuen artean eta parteka dezagun, horrela, konpromiso hau